



# GEHIENGOAREN HIRIA

*Jonander Agirre Mikelez  
Ander Gortazar Balerdi*





**2019**





# *GEHIENGOAREN HIRIA*

*Jonander Agirre Mikelez*

*Ander Gortazar Balerdi*

**Azaleko argazkiaren egilea**  
Jacek Markusiewicz.

**Gazteleraako itzulpena**  
Jonander Agirre Mikelez.

**Argazkiak**  
Ander Gortazar Balerdi eta  
Jonander Agirre Mikelez.

**Mapak**  
Ander Gortazar Balerdi

**Diseinua eta maketazioa**  
[www.eragin.com](http://www.eragin.com)

**Inprimategia**  
Alzate Grafikak

**ISBN**  
978-84-937701-8-1

**Lege gordailua**  
SS 0039-2019

## AURKIBIDEA / ÍNDICE

ALKATEAREN AGURRA Saludo de la alcaldesa	9
<hr/>	
I EDERTASUNAZ ITSUSTASUNAZ NOSTALGIAREN ALDE (ETA KONTRA) ONDARE ARKITEKTONIKOAZ  De la belleza De la fealdad A favor (y en contra) de la nostalgia Del patrimonio arquitectónico	11
<hr/>	
II GEHIENGOAREN HIRIA PROGRESUAZ OROGRAFIAZ  La ciudad de la mayoría Del progreso Orografía	25
<hr/>	
III ESPRESIBITATE BERRIAK IZENIK GABEKO ARKITEKTOAK  Nuevas expresividades Arquitectos anónimos	55
<hr/>	
IV EPILOGOA  Epílogo	81



Vivimos encerradas en la ciudad, una ciudad que nos rodea pero que no vemos. Sin embargo, es ésta una ciudad de la mayoría, que forja personalidad y en la que sorprende, por no esperada, su fuerza interior. Fuerza y belleza. Y adjetivizarla así contribuye también a cambiar y afirmar la percepción y los prejuicios que todavía pueda haber sobre sus habitantes. Desde esta ciudad de la mayoría tenemos claro cómo queremos ser y cómo contar nuestra Historia.Y parte de ese relato es este hermoso libro. Que conocer mejor nuestro entorno nos ayude a considerarlo también mejor, nuestro deseo.

Hiriak inguratzen gaituen arren, ez dugu ikusten.

Hiria etsaitzat hartzen dugu, haren parte bagara ere. Gehiengoaren hiriarenak gara. Indarra eta espero ez duzun edertasuna erakusten duen gehiengoaren hiriarenak. Indartsua eta Ederra. Horrela azaltzen dugu gure ingurunea. Era berean, horrela agertu nahi dugu geure burua Historian. Hiria kanpotik baino ezagutzen ez duenari gure edertasuna erakutsi nahi diogu. Liburu eder honek errelato horren berri ematen du. Gure hiria hobeto ezagutzea eta hobeto maitatzea, horra hor gure desioa.

**Izaskun Gómez Cermeño**  
*Pasaiako Alkatea*  
*Alcaldesa de Pasai*

1

Etxebizitzaren blokeen arteko espazioa. Balkoiak alde batetara, pasareladun etxeak. Atzealdean Azkueneko dorreak, Bidebieta eta Gaiztarro.

*Espacio entre bloques lineales de vivienda. Balcones a un lado, al otro pasarelas. Al fondo torres en Azkuene, Bidebieta y Gaiztarro.*



# **I**

***EDERTASUNAZ  
ITSUSTASUNAZ  
NOSTALGIAREN ALDE (ETA KONTRA)  
ONDARE ARKITEKTONIKOAZ***

***DE LA BELLEZA  
DE LA FEALDAD  
A FAVOR (Y EN CONTRA) DE LA NOSTALGIA  
DEL PATRIMONIO ARQUITECTÓNICO***



Azkuene auzoaren bista Bidebietako igogailutik.

Vista del barrio de Azkuene desde el ascensor de Bidebieta.





3

Eskalantegi kaleko bi blokeen arteko harreman argia. Alde batera Donostia, bestera Pasaia. Tipología bakarreko mende hasierako eraikuntza erakusten dute. Erdian, geroago etorriko denaren eredu bat.

Relación entre dos bloques de vivienda en la calle Eskalantegi. A un lado San Sebastián, al otro Pasaia. Son ejemplos de la construcción de principios de siglo. En el medio, un ejemplo de lo que vendría después.

4

Azkuene kaleko  
bukaeran alboetako  
fatxaden tratamendua.

*Variedad de  
tratamientos de  
fachada en testero  
al final de la calle  
Azkuene.*





5


Badiaren sarreraren itxura barnealdetik. Lehen planoan Basterretxearen eskultura.

*Vista de la boca de la bahía desde el interior. En primer plano la escultura de Basterretxea.*

6

La Herrerako portuko pabiloiak, Gaiztarro atzealdean.

*Pabellones en la zona portuaria de La Herrera. En el fondo Gaiztarro.*





7

Antxorako sarrera Eskalantegi kaletik.

*Entrada a Antxo desde la calle Eskalantegi.*

## **DE LA BELLEZA**

*El de la belleza es un debate constante. ¿Qué hace bello un objeto, un edificio, un pueblo? Los griegos planteaban reglas matemáticas como sustento de la belleza; cifras y proporciones a modo de límites de lo bello. Unos límites rígidos basados en estas reglas permitían definir de manera objetiva la belleza. Hemos sido capaces de romperlas, pero son aquellos que mejor conocen estas reglas los que consiguen encontrar la belleza fuera de la norma. ¿O quizás no? ¿Cuántos son los que, empujados por cierto refugio postmoderno, se apoyan en los «gustos» para (no) definir la belleza, como si esos «gustos» no se asentaran sobre unas construcciones y consensos sociales muchas veces inadvertidos? El crítico de arquitectura Adam Nathaniel Furman afirmaba: «No hay tal cosa como la belleza en Arquitectura, únicamente la reafirmación de un status-quo y la deslegitimación de la diferencia a través de una constante veneración de varias manifestaciones de nostalgia común».*

*No hay belleza sin observador –de la misma manera que no existe el sonido de un árbol que cae si no hay nadie que lo oiga–, y la percepción sí tiene, por lo tanto, su importancia. Las modas se van tan pronto como vienen, sacudiendo cada cierto tiempo algunas concepciones sobre la belleza estética. ¿Es atractiva siempre la belleza? ¿Es siempre aborrecible la fealdad?*

## **DE LA FEALDAD**

*La elección de las palabras no suele ser caprichosa y nos predispone a ciertas ideas. La palabra en castellano es «fealdad» al igual que en inglés se usa «ugliness» con pocas alternativas para huir de la connotación negativa que la propia raíz tiene. Poca holgura nos dan las poco ortodoxas «feura» o «feismo». El euskera en este caso nos da la opción de marcar la connotación con el sufijo, separando de esta manera «itsustasuna» de «itsuskeria» pudiendo así, en cierta manera, tejer una defensa sobre la idea de la «fealdad» porque, tal como decía Serge Gainsbourg, «la fealdad está por encima de la belleza, ya que esta dura más».*

*Pero volvamos a la afirmación de Furman. ¿Cuál es esa nostalgia que veneramos constantemente? Podríamos decir que son cuatro las formas que toman los consensos estéticos dentro de la arquitectura y del urbanismo en nuestro entorno. La primera serían las partes viejas compactas, herencia de un pasado medieval o pre-moderno que cimenta la identidad colectiva (y justificación política) dentro de la historia, enlazándolo con lo que es muchas veces un pasado idealizado. Las segundas serían los caseríos y pequeños puertos que en su idea pre-industrial nos distancian del desarrollismo y de la velocidad de nuestra época, haciéndonos imaginar un pasado mas calmo y con una relación estrecha con la naturaleza,*

## **EDERTASUNAZ**

Eztabaidea perpetua da edertasunarena. Zerk egiten du objektu bat, eraikin bat, herri bat, eder? Greziarrek matematika ikusten zuten edertasunaren atzean: zenbakiek, ratio zehatzak. Hortaz, zurrunk dira konposizioaren arau klasikoak. Asmatuak daude eta objektiboak dira. Libre gara hainek hausteko, baina edertasunaren kanon horiek zehatz-mehatz ezagutzen dituztenak izan ohi dira kanon horietatik at edertasuna lortzen dutenak. Ala agian ez? Zeinbatek, aje postmodernoak jota, «norberaren gustuak» aipatzen dituzte edertasuna (ez) definitzeko, «norberaren» horren atzean konstrukto sozialik eta oharkabeko kontsentsurik ez balego bezala. Adam Nathaniel Furman diseinatzailak idatzi zuen moduan, «edertasuna arkitekturan, ez dago halakorik; soilik status quo-aren indartzea eta ezberdintasunaren deslegitimizazioa, nostalgia komunaren benerazio konstantearen bidez».

Edertasunik ez dago ikuslerik ez badago –lurrera erortzen den zuhaitzak sortutako soinurik ez dagoen modu berean hori entzungo duenik ez badago–, eta pertzepzioak badu, beraz, garrantzia. Azken finean, gustuek datozen moduan egiten dute alde, egia estetikoak noizbehinka astinduz. Erakargarria al da beti edertasuna? Higuingarria al da derrigor itsutasuna?

## **ITSUSTASUNAZ**

Hitzen aukeraketa ez da debalde eta euskaraz bederen badiogu zeri heldu. Itsutasuna esaten diogu gazteleraez «fealdad» eta ingelesez «ugliness» esaten zaionari, atzizkiaren menpe utziz ñabardura. Handitasuna eta handikeria, txikitasuna eta txikikeria, nagusitasuna eta nagusikeria. Bada, itsutasuna esaten diogu eta ez itsuskeria, eta poztu beharko ginateke horregatik. Esker on apur bat itsutasunari; azken finean, Serge Gainsbourg-ek esan zuen moduan, «itsutasuna edertasunaren gainetik dago, luzeago irauten duelako».

Baina gatozen bueltan Furmanen esaldira. Zein da konstanteki gurtzen dugun nostalgia komun hori? Arkitektura eta hirigintzaren alorrean edertasun adostuak gurean hartzen dituen formak lau direla esan genezake. Lehenak, alde zahar konpaktuak, nortasun kolektiboari erro historikoa (eta justifikazio politikoa?) ematen dio askotan idealizatutako iragan batekin lotuz. Bigarrenak gaurko garapenkeriatik aldentzen gaituzten eraikinak dira, iragan mantsoago bat eta naturarekiko beste erlazio bat bazegoela pentsarazten diguten baserri eta itsasportu txikiak, tradizioen gordailu moduan ulertzen direnak. Hirugarrenak, zabalgune burgesak, harresiak eraistearen ondorioz sortutakoak, ekonomia berriaren olatua hartz zuen gizarte irekiagoa, arrazionalagoa islatzen du. Azkenik,

depósito de tradiciones y costumbres. Las tercera serían los ensanches burgueses de comienzos de siglo XX tras el derribo de las murallas, representando la aparición de la idea de estado sobre una sociedad más abierta y racional que legitima un nuevo modelo económico. La cuarta forma mira al futuro; es aquella que nos construye la idea ya nostálgica del anhelo en el futuro, representada muchas veces por arquitectura con fecha de caducidad. Resumiendo, este consenso estético se sostiene en cuatro ideas base: La legitimación histórica, la relación con la naturaleza, la legitimación del modelo económico y la promesa del progreso. El poso político es notorio, este haya sido decidido o no.

Echemos ahora un vistazo a Pasaia y su bahía y veamos qué hay de este consenso de la nostalgia común. San Juan, con su puerto histórico bien conservado, es el foco destacable de la zona y el que más se acerca a los cánones antes señalados. Existen también varios caseríos desperdigados por los valles que llevan a la bahía, así como oficialmente bellos edificios de esa influencia burguesa donostiarra en el puerto. Por último, existen innumerables proyectos de arquitectura y urbanismo alrededor de la bahía, muchos de ellos ya famosos, que han prometido un futuro a la bahía, a pesar de que la mayoría hayan quedado en papel. La nostalgia a menudo también toma forma de utopía.

Si tras esta lectura hacemos un repaso cronológico nos daremos rápidamente cuenta de un vacío. La Pasaia contemporánea ha tomado forma principalmente por el impulso desarrollista de los

años 60-70, pero son los elementos de otras épocas las que se consideran bellas dentro del consenso social. Es, por lo tanto, pertinente hacernos una pregunta: ¿es la belleza lo que buscamos o es la nostalgia?, ya que da que pensar que condenemos al rincón oscuro de la mediocridad a la inmensa mayoría del entorno construido, asumiendo que no alberga valor alguno, sin dar ninguna pista –ni tan sólo pedirla– para entender esa «fealdad».

Es este desequilibrio el punto de partida de este libro, situando el foco sobre esa arquitectura de la segunda mitad del siglo XX y en la ciudad que construyó. Sin intención de entrar en mitificaciones, este libro quiere darle un contexto a la arquitectura mayoritaria en la bahía de Pasaia, queriendo destacar y señalar proyectos y características que nos ayuden a entender y valorar el escenario de nuestro día a día.

#### **A FAVOR (Y EN CONTRA) DE LA NOSTALGIA**

El modo de vida contemporáneo tiene por característica una vertiginosa velocidad de los cambios y la incapacidad para la adaptación a los mismos, convirtiendo la nostalgia en elemento indispensable de la cultura occidental. La palabra «nostalgia» tiene origen griego: nosotros (vuelta a casa) y álgos (anhelo, deseo), es decir, «anhelo de volver a casa», donde «casa» es algo que ya no existe o que jamás ha existido. A qué le llamamos «casa» es, entonces, el centro del debate.

Svetlana Boym define dos tipos de nostalgia. Por un lado la nostalgia reconstructiva, aquella que tiene como eje principal el restablecimiento del concepto

etorkizun desiratuaren nostalgia da laugarrena, maiz iraungitze-data duen momentuko arkitektura garaikideak formalki ordezkatua. Labur esanda, beraz, edertasun adostuak lau hanka lituzke, gure gizartean erabat errotuak daudenak: legitimazioa historikoa, naturarekiko harremana, ekonomia modeloaren legitimazioa eta progresuaren promesa. Erabakiak izan ala ez, arrasto politikoa agerikoa da.

Har ditzagun orain Pasai eta Pasaiadea, eta azter dezagun zer duen inguru honek goian aipaturiko kontsentsuzko nostalgia komun horretatik. Pasai Donibane da, ongi kontserbatutako itsas-portu historikoa, edertasunaren kanonari gehien gerturatzentz zaion herria. Baserri bakan batzuk egon badaude, bai eta Donostiako eragin burgesa jaso zuten eraikin ofizialki eder batzuk ere. Azkenik, badiaren biziberritzeari lotutako arkitektura eta hirigintza proiektu ospetsuak aipa genitzake, gehienak ezerezean gelditu diren arren. Nostalgiak utopiaren antza handia baitu batzuetan.

Errepaso kronologikoa egin eta laster xamar ikusten da badela hor hutsune bat. Gaur egungo Pasaiako badia gerraoste ondorengo hamarkadetan eraikitakoari esker da, baina garapen aro horretatik kanpoko elementuak dira herriari edertasuna –kontsentsuzkoa, esan nahi baita– ematen diotenak. Pertinentea da, beraz, galdera: edertasuna da bilatzen duguna ala nostalgia da? Zer pentsatua ematen baitu ingurune eraikiaren zatirik handiena mediokritatearen zulo beltzera kondenaturik ikustea, inongo baliorik ez duela

asumitz, itsutasun hori ulertzeko pistarik eman edo are eskatu gabe.

Desoreka hori da ikerketa honen abiapuntua, eta horregatik jartzen du fokua XX. mendeko bigarren erdian eraiki zein arkitekturan eta honek eragin zuen hirian. Mitifikatzeko inolako asmorik gabe, Pasaiako badian nagusi den arkitekturari testuingurua jarri nahi dio liburu honek, gure bizitzen eszenatokia den lekua ulertz eta kontestu hori hoberen islatzen duten proiektuak eta ezaugarriak nabarmenduz.

### **NOSTALGIAREN ALDE (ETA KONTRA)**

Bizimodu garaikideak berezkoa du aldaketen abiadura azkarra, eta gure kulturaren berezikoz ezaugarri bihurtu du nostalgia. Jatorri greziarra du hitzak: *nóstos* (etxera itzulera) eta *álgos* (grina, irrika, desira), alegia, «etxera itzultzeko desira», non «etxea» jada existitzen ez den –edo sekula existitu ez den– zera idiliko hori den. Zeri deitzen diogun «etxea», hori da seguruenik eztabaidearen muina.

Svetlana Boym-ek bi nostalgia mota bereizten zituen. Alde batetik nostalgia berreraikitzalea, «etxea» kontzeptuaren berreraikuntza duena ardatz: jatorria, purutasuna, tradizioa, ikurrak, errituak. Historia, letra larriz. Nostalgia berreraikitzaleak egia bilatzen du, eta aurkitzen ez duenean, sortu beste erremediorik ez du. Esan gabe doa, ametsezko arkadia horrekin bat ez datorren oro alboratu egiten du nostalgia berreraikitzaleak. Nostalgia erreflexiboak, aldziz, desirari jartzen dio azpimarra, eta egia paraleloak –are kontraesankorak– onartzentzu ditu, leku eta garai

«casa» (nóstros): el origen, la pureza, la tradición, los símbolos, los ritos. La Historia tal y como es asumida. La nostalgia reconstructiva busca la verdad, y al no encontrarla, no tiene otro remedio que inventársela. En esa Arcadia soñada encaja una parte del todo y el resto es descartado. La nostalgia reflexiva, en cambio, se centra en el deseo (álgos) y es capaz de aceptar verdades paralelas y sus contradicciones, generando un puzzle de tiempos y lugares, viéndose como parte de un Continuum que construye la historia a partir de capas superpuestas. En palabras de Boym, «la nostalgia reconstructiva protege la verdad, mientras que la nostalgia reflexiva la pone en cuestión». También se trata de una actitud: «La nostalgia reconstructiva se toma a sí misma con extrema seriedad. La nostalgia reflexiva, en cambio, puede ser jovial e irónica».

La nostalgia no es, por lo tanto, algo malo por se. Pero si queremos hacer una lectura holística de la arquitectura de Pasaia nos veremos obligados a poner en cuestión varias certezas sobre la belleza, el pasado, la identidad o la verdad. Se requiere un cambio de actitud.

#### **DEL PATRIMONIO ARQUITECTÓNICO**

Desde el punto de vista de la arquitectura y el urbanismo, la principal herramienta para dar respuesta a la nostalgia que nos rodea han sido las normas de protección del patrimonio. Es un concepto relativamente nuevo el de la protección del patrimonio, un concepto que ha crecido exponencialmente desde el final de la segunda guerra mundial. Monumentos y reservas naturales fueron lo primero en ser protegido, seguido por conjuntos edificatorios, infraestructuras, flora y fauna, mobiliario y nos encontramos

actualmente en la protección de costumbres, ritos e incluso comidas y trajes en una especie de apoteosis de la nostalgia reconstructiva. A medida que protegemos más cosas, más nos hundimos en la contradicción básica que tiene esta herramienta: debido a que no todo se puede proteger, cada día es más grande la trinchera entre lo que se protege y lo que se considera falso de valor.

Los edificios –o infraestructuras o costumbres o comidas– más protegidos son resultado de la suma de diferentes capas históricas y estilísticas. Es decir, han llegado hasta nosotros en gran medida por esa capacidad de aceptar y adaptarse a los cambios. Y aquí nos aparece una gran paradoja: conocedores de su valor, los protegemos congelándolos en el tiempo, haciendo del pasado su único futuro. Mientras tanto, tantas verdades – a veces, incómodas– necesarias para entender nuestra historia y nuestro presente son arrinconadas, dejándolas a merced de los vaivenes del mercado.

Rem Koolhaas destacaba, a raíz de la exposición «Cronacaos» expuesta en la bienal de Venecia, que la protección del patrimonio se basa en destacar la excepción, y que por lo tanto no tenemos mecanismos para proteger la norma, lo habitual, lo genérico. Un choque entre dos nostalgias otra vez. Si cambiamos la forma de entender la nostalgia, forzosamente se cambiará la forma de entender el patrimonio y las formas de protegerlo ya que no podemos congelarlo todo eternamente. ¿Cómo podemos hacer para proteger, de manera sistemática y sin prejuicios estéticos, todas esas capas de nuestras ciudades?

ezberdinen memoria-zatien puzzle baten moduan. *Continuum* baten parte ikusten du bere burua, geruzaz geruza etorkizuna eraikitzen duen prozesu baten moduan ulertuz historia –letra xehez–. Boym-en hitzetan, «nostalgia berreraikitzaleak egia absolutua zaintzen du, nostalgia erreflexiboa zalantzan jartzen duen bitartean». Jarrera kontua ere bada: «nostalgia berreraikitzaleak serio demonio hartzen du bere burua. Nostalgia erreflexiboa, ostera, umoretsua eta ironikoa izan daiteke».

Nostalgia ez da, beraz, *per se* txarra. Baino Pasaiako arkitekturaren irakurketa holistiko bat egin nahi badugu, derrigorrean jarri beharko ditugu zalantzan ziurtasun batzuk, edertasunaren, iraganaren, nortasunaren, egiaren ingurukoak. Jarrera aldaketa bat, alegia.

#### **ONDARE ARKITEKTONIKOAZ**

Hirigintza eta arkitekturaren ikuspuntutik, nostalgiari erantzuna emateko tresna nagusia ondarearen babeserako ordenantza eta arauak izan dira. Kontzeptu berri samarra da ondarearen babesarena, *in crescendo* joan dena bigarren mundu gerraz geroztik: eraikinak eta naturguneak hasieran; eraikin-multzoak, azpiegitura, flora eta fauna, bai eta ohiturak eta jakiak ere nostalgia berreraikitzailaren apoteosian. Gero eta gauza gehiago babesten goazen heinean, jarrera honek duen kontraesana modu gardenean ageri zaigu: den-dena babestu ezin daitekeenez, gero eta handiagoa da modu berreraikitzailean babesten denaren eta inongo baliorik aitortzen ez zaion gehiengoaren arteko lubakia.

Eraikin –edo eraikin-multzo edo ohitura edo jakি– babestuenak geruza historiko eta estilistiko ezberdinen batura dira. Alegia, gaurdaino iritsi dira hein handi batean aldaketak onartu eta egokitzeko izan duten gaitasunagatik. Paradoxikoa da: haien balioaz jakitun, izotz babesten ditugu eta iragana bihurtzen dugu haien etorkizun bakar. Bitartean, gure historia ezagutzeko beharrezkoa diren hainbat eta hainbat egiazkotasun – baiki, ezeroagoak– alboratu egiten ditugu, merkatuaren apeta aldakorraren menpe utziz.

Rem Koolhaas-ek zioen, Veneziako bienalerako egindako «Cronocaos» erakusketaren harira, ondarearen babesera salbuespena azpimarratzean oinarritzen dela, eta ondorioz, ez dugula mekanismorik ohikoa, generikoa, mediokrea dena babesteko. Bi nostalgiengatik berriz ere. Nostalgia ulertzeko modua aldatzen badugu, derrigorrez aldatu beharko ditugu ere ondarea ulertzeko modua eta hura babesteko mekanismoak, ezin baikara ibili dena izozten etengabe. Nola babestu bada, modu sistematikoan eta aurreirizti estetikorik gabe, gure hirietako geruza horiek guztiak?

Felix Llanosen etxebizitza dorrea eta De Yturriaga Dou-ren triplexak (alboetan) Ulia pasealekuaren, Trintxerpe.

Torre de viviendas de Felix Llanos y viviendas en triplex de De Yturriaga Dou (a los lados) en el paseo de Ulia, Trintxerpe.



# *II*

*GEHIENGOAREN HIRIA  
PROGRESUAZ  
OROGRAFIAZ*

*LA CIUDAD DE LA MAYORÍA  
DEL PROGRESO  
OROGRAFÍA*

## LA CIUDAD DE LA MAYORÍA

Tal y como se ha dicho, al hacer un repaso histórico se puede observar rápidamente que aquello que ha construido la imagen de Pasaia –que no la imagen de belleza consensuada– ha sido todo aquello que ha transformado la bahía tras la posguerra y en el desarrollismo posterior, justamente esa arquitectura y ese urbanismo que se asocia a la fealdad o mediocridad. No podemos negarla, esta delante de nuestros ojos: es la ciudad de la mayoría y merece una aproximación arquitectónica.

Comencemos por plantear una idea: una torre de viviendas de 15 alturas es una tipología tan vasca como el caserío. En Pasaia existen varias, de formas, lenguajes, funciones y diferentes grados de interés. De forma parecida podríamos hablar de los bloques lineales horizontales que se adaptan a las curvas de nivel por las diferentes lomas de Trintxerpe, San Pedro o San Juan que rodean Pasaia. A primera vista todos los bloques parecen similares, pero son diversos si se observan desde más cerca. Esta arquitectura rompe los límites del municipio y se expande por toda la bahía, definiendo y expresando una unidad alrededor del puerto no reconocida por los límites administrativos.

¿A qué llamamos, por lo tanto, la ciudad de la mayoría? Podríamos destacar cuatro ideas. La primera es la del progreso, y del choque de esta idea con la tradición y de cómo la modernidad ha buscado ser híbrida, mezclando simbolismo y función. La segunda habla de la orografía de nuestro entorno, característica que genera

condiciones muy concretas en nuestro edificios y calles. La tercera es el nacimiento de nuevas expresividades, que nos fuerza a hacer una lectura del lenguaje arquitectónico de los 60-70. Por último, mencionar a las personas se hace indispensable, tanto a los arquitectos que dibujaron como a las personas que habitaron y habitan, haciendo ambos arquitectura.

## DEL PROGRESO

Tras estas innovaciones se encuentra siempre una forma de entender las ideas de tradición y progreso. Bien interpretadas, las ideas del progreso y de la tradición pueden reforzarse entre ellas, pero suele ser más común una interpretación que por oposición consigan anularse entre ellas, bien por un lado o por el otro.

La relación conflictiva entre tradición y progreso se puede representar de forma bastante clara sobre la idea del caserío vasco y por lo general en las figuras de la ruralidad. Como es bien conocido, debido a la industrialización, nuevos barrios y ciudades fueron creados para dar cobijo al éxodo proveniente del mundo rural. En este cambio de contexto aparecían impuestas nuevas ideas de escala, velocidad y técnica, paradigma de este mundo nuevo. El lenguaje utilizado, en cambio, ha sido considerado siempre como una opción y en esa elección la nostalgia ha tomado un papel importante históricamente. A comienzos del siglo XX en el País Vasco se extendió el estilo denominado neovasco, especialmente en promociones de

## **GEHIENGOAREN HIRIA**

Hasieran aipatu moduan, errepaso historikoa egiterakoan azkar ikusten da Pasaiako badiari nortasuna –kontsentsuzko edertasuna ez bezala– gerraosteko hamarkadetan eraikitakoak ematen diola, hain zuen ere itsustasunarekin edo mediokritatearekin lotzen den arkitektura eta hirigintzak. Hortxe dago gure begien aurrean: gehiengoaren hiria da eta merezi du hurbilpen arkitektoniko bat.

Onar dezagun: 15 pisuko etxebizitza-dorrea baseria bezain euskal tipologia da. Pasaiako badian bada mordoxka bat, forma, lengoaia, funtzio eta interes-maila askotarikoak. Antzoko terminoetan hitz egin genezake bloke lineal horizontalen inguruan. Oroografiara erraz moldatzen den eraikin mota bat da: sesta-kurbak jarraituta, han-hemenka topa ditzakegu San Pedro, Donibane eta, batez ere, Trintxerpeko mendi-magaletan. Antzokoak lehen begi-kolpean, askotarikoak dira hauek ere. Edonola ere, arkitektura hau ez da Pasaia udalerrira mugatzen: badia osoan aurki ditzakegu horrelako eraikinak, portuaren inguruko irakurketa bateratu bat ahalbideratzen dutenak.

Zeri deitzen diogu, baina, gehiengoaren hiria? Lau ideia aipatu behar genitzuke. Lehena progresuarena da, eta hark orduko ohiturekin izandako talkarena. Bi kontzeptu hauek –progresua eta ohitura– ulertzeko moduek ekarri zuten modernitateak kontestualizazio bat eskatzen du. Bigarrena gure lurrardearen orografia da, ezaugarri oso zehatzak sortzen dituena

bai eraikinetan bai eta hirigintzaren ikuspuntutik ere. Hirugarren ideia espresibitate berriena da, 60-70eko hamarkadetako arkitektura-lengoaiaren irakurketa bat dakarrena. Azkenik, pertsonak aipatzea ezinbestekoa da, arkitektura hau posible egin duten arkitektoak eta erabiltzaileak, alegia.

## **PROGRESUAZ**

Berrikuntza hauen guztien atzean progresuaren eta tradizioaren ideiak ulertzeko modua dago. Ongi ulertuta, progresuak eta tradizioak elkar elika dezakete, baina gertatu ohi da batak bestea neutralizatzea ere, alde batera zein bestera.

Tradizioaren eta progresuaren arteko harreman gatazkatsu hori ongi islatzen du baserriaren, eta oro har, ruralitatearen figurak. Industrializazioaren eraginez, hirigune berriak sortu ziren Europa osoan zehar, gehienbat landa-eremuetatik zetorren jendeari aterpe emateko. Aldaketa-testuinguru honetan berriak ziren eskala, abiadura eta teknika; zein lengoaia erabili, ordea, hautu bat da hori, eta nostalgiak zeresana izan du historikoki hautu horretan. Euskal Herrian estilo neovasco delakoak arrakasta dezente izan zuen XX. mendeko langile-etxebizitza sustapenetan (casas baratas multzoetan, nabarmen), langileek atzean uzten zuten inguru idilioaren errepresentazio gisa – Alemaniako Siedlung-eten ez bezala, non estetika depuratuagoa erabili baitzen–. Instituto Social de la Marina delakoak Pasaian eraikitako El Poblado auzoa (Eugenio de Aguinaga, 1952), esaterako, landa-erreferentzia ezberdinaren arteko nahasketa

vivienda obrera (muy común en los grupos de casas baratas) a modo de representación idealizada del mundo que dejaban atrás, aunque por lo general eran añadidos epidémicos sobre una arquitectura ya completamente diferente. En el conocido como *El Poblado en Pasaia* (Eugenio de Aguinaga, 1952), barrio para pescadores construido por el Instituto Social de la Marina, se mezclan varios rasgos de arquitectura rural de diversa procedencia en el exterior –zócalos de piedra en planta baja, regresos de ventanas con molduras, cubiertas a cuatro aguas en dos pendientes–; rasgos contrapuesta a la tipología usada, que se amolda a las ideas higienistas y de vivienda mínima de aquella época, alineándose con la idea de progreso.

*La idea de ruralidad se ha ido reconstruyendo con el tiempo. En el País Vasco es interesante ver como la idea del caserío –o quizás mejor esa idea nostálgica de lo vasco– ha ido tomando forma en lugares y momentos diferentes. Es casi divertido ver la consecución de los nuevos edificios pintorescos de la calle Torreatze, con sus elementos de caserío labortano y detalles de arquitectura costera mezclados con todo tipo de requerimientos contemporáneos. El contraste es claro al llegar a la casa Ondartxo (Ricardo Olaran, 1961) en el número diez de esa misma calle, que mantiene un lenguaje más moderno a pesar de haberse construido medio siglo antes. Además de su implantación y su volumen cuadrado, es destacable su cubierta, a una agua, así como los balcones en punta que se convertirán en un gesto efectista por toda la nueva arquitectura de la bahía de la época.*

*Si el hilo de la tradición ha de seguir, será a través de una nostalgia reflexiva y para ello sería conveniente abrir la perspectiva y cuestionarnos ciertas ideas generalizadas. El postmodernismo vasco o EusPoMo ha hecho una amplia reinterpretación del caserío –siendo la VPO EusPoMo probablemente el cenit– pero hay vida más allá de la imagen. Si hay una característica clave en el caserío y en la arquitectura rural por lo general, no es la estética, sino la funcional-morfológica: la vida y la producción eran una misma cosa y la superposición de diferentes funciones en esta arquitectura es muy obvia cuando se dibuja una sección. Esto, obviamente, tiene también su relación con la orografía.*

*Podríamos argumentar por lo tanto, que la evolución natural del caserío se encuentra en las casas-taller que son características en Eibar (uniendo vivienda y uso productivo) y yendo un paso más allá podríamos decir que los edificios multifuncionales como el que cubre los números 10-24 de la calle Bordalaborda en San Juan (Eduardo Zaldúa, 1977) o los que hacen a la vez hacen grandes saltos topográficos como PABINSA en Ancho (José Antonio Manso de las Moras, 1979) tienen mucho que ver con aquella arquitectura.*

## **OROGRAFÍA**

*Los cambios de cota y la mezcla de usos son dos realidades que se refuerzan la una a la otra, binomio muy común en orografías como la de Pasaia. Hasta mediados del siglo XX, los ensanches y grandes crecimientos se edificaban en terrenos llanos, principalmente en terrenos desecados; a falta de*

bat da estetikoki –harriz osatutako zokaloak, leioak inguratzent dituzten moldura potoloak, isurki ezberdineko teilituak; tipologikoki, ordea, irizpide higienistean oinarritutako auzune garaikidea zen, progresuaren ideiarekin lerrokatua.

Ruralitatearen ideia berreraiki egin da momentuko beharren arabera. Euskal Herrian, interesgarria da ikustea nola berreraiki den euskal baserriaren –ala agian hobe, euskal nostalgiaren– irudia toki eta garai zehatzetan. Pasaian, esaterako, azpimarragarriak dira Torreatze kaleko eraikin berri pintoreskoak: baserri lapurtarren eta itsasarkitekturen elementu solte batzuen nahasketa, behar garaikideen ondorio diren beste elementu batzurekin batera irabiatuta. Kontrastea begibistakoa da kale bereko 10.ean dagoen Ondartxo etxearekin (Ricardo Olaran, 1961), zeinak lengoaia modernoagoa baituen mende erdi lehenagoa eraiki bazeen ere –edo horrexegatik seguruenik–. Aipatzeko da balkoien triangulu-forma, Pasaiaiko beste hainbat eraikinetan barra-barra errepikatzen den keinu efektista.

Tradizioaren hariak segida izango badu nostalgia erreflexiboaren ildotik izango da, eta komeni da ikuspegia zabaldu eta uste orokortu batzuk zalantzaren jartzea. *EusPoMo* Euskal postmodernismoak baserriaren itxuraren gaineko berrinterpretazio zabala egin du –babes ofizialeko *EusPoMo*-a da, seguruenik, gailurra–, baina bada bizitzarik itxuraz harago. Lehen sektorearekin lotutako eraikinek ezaugarri bat badute, hori funtzional-morfologikoa da: produkzioa eta bizitza

bat ziren, eta funtzi ezberdin pilaketa oso agerikoa da ebaketa soil bat marraztuz gero. Orografiak zerikusi handia du honetan, noski. Argudia liteke, beraz, baserriaren oinordeko naturala Eibar berezi egiten duen etxe-tailer morfologia dela, eta bigarren fase batean, irakurketa apur bat muturrekoa eginez, Donibaneko Bordalaborda kaleko 10-24.a (Eduardo Zaldua, 1977) bezalako eraikin multifuntzionalak edota kota-aldaketa handiak josten dituzten eraikinak, Antxoko PABINSA kasu (Jose Antonio Manso de las Moras, 1979).

### **OROGRAFIAZ**

Izan ere, kota aldaketa eta funtzi-nahasketa elkar elikatzen duten bi errealtitate dira, ohiko binomioa Pasaiakoa bezalako orografia malkartsuetan. XX. mendearren erdialdera arte, hirigintza-garapen nagusiak ziren zabalguneak lur lauetan egin ohi ziren –lehortutako gune hareatsuetan maiz–; hauen faltan, eremu aldapatsuak bihurtu ziren eraikuntza berrien kokaleku, aldirietan bereziki. Lur egokien faltan aldapak dira, garai bereko aldiri europar gehienekin konparatuta, euskal periferiareni ezaugarri nagusiak.

Egoera honek, halabeharrez, funtzi ezberdinaren arteko konpatibilitatea izan zuen ondorio: etxebizitzak, tailerrak, industria, zerbitzuak eta azpiegiturak bata bestearen gainean pilatuta, maiz literalki. Formalki bereizitako zokaloa mekanismo morfologiko arrunta da, Gudarien plazako dorre-eraikina(k) (Vicente Orbe eta Jose Luis Pla, 1975) edo jada aipatutako Bordalaborda eta PABINSA kasu.

*ellos, la construcción se fue generalizando en las laderas de las zonas industriales en la segunda mitad del siglo XX. La pendiente es, en contraste con las periferias del norte de Europa, una de las principales características de la periferia vasca.*

*Esta situación fuerza a la búsqueda de compatibilidades entre diferentes funciones: viviendas, talleres, industria, servicios e infraestructuras a menudo entrelazadas o superpuestas, a veces, literalmente. La definición de un zócalo es un recurso habitual como hemos visto antes con los edificios de Bordalaborda o PABINSA y que se lleva a una nueva escala en la plaza Gudari (Vicente Orbe y Jose Luis Pla, 1975), que cubre un cambio de cota de varias alturas conteniendo aparcamiento, oficinas y otros servicios, sobre la que se coloca una torre formalmente independiente de viviendas.*

*Además de la adecuación de la edificación, el paisaje de Pasaia se condiciona por mecanismos para solucionar los cambios de cota debidos a la orografía: escaleras, rampas, plataformas, y, últimamente, ascensores y escaleras mecánicas. Estos elementos han sido muchas veces definidos como proyectos formales en sí mismos: en El*



*Poblado y Escalerillas se destaca muy claramente, pero también en el camino del Faro 1-3 (Ramon Martiarena, 1965), al final del paseo de los Olmos en Bidebieta (Fausto Gaiztarro, 1965) o en el mismo Instituto Marítimo Pesquero de Pasaia (José López Zanón y Luis Laorga, 1965).*

*Los ascensores urbanos, por otro lado, tienen la capacidad de desviar los recorridos, cambiando la jerarquía espacial. En ocasiones son simples soluciones de accesibilidad, pero los proyectos de ascensores pueden traer cambios fenomenológicos, entendiendo la fenomenología como el «aumento de la percepción que refuerza el vínculo personal con el espacio», en palabras de Iñaki Ábalos. Los nuevos ascensores, con sus pasarelas horizontales y sus travellings verticales, generan nuevos puntos de vista, haciendo posible una nueva lectura del paisaje. En la bahía de Pasaia seguramente podríamos destacar los nuevos ascensores de Alaberga en Errerteria (VAUMM, 2017), pero por toda la bahía y sus laderas hay una gran cantidad de ellos, como los de Buenavista en Altza, en Trintxerpe entre la calle Los Marinos y Ricardo Arrillaga, al lado del palacio Andonaegi, en la calle Azkuene o en la plaza de la Iglesia de San Juan, por mencionar unos pocos.*

Bitartean, eskailerak, plataformak eta, azken urteotan, igogailuak kota aldaketak dakartzan mugikortasun-arazoei irtenbidea emateko mekanismoak dira, Pasaiako paisaia erabat baldintzatzen dutenak. Batzuetan, eskailerak proiektu-elementu formal gisa ulertzten dituzte arkitektoek: El Poblado eta Escalerillas-en oso nabarmen, baina baita Farolako bideko 1-3.ean (Ramon Martiarena, 1965), Bidebietako Zumardi pasealeku amaieran (Fausto Gaiztarro, 1965) edo Pasaiako Itsas Arrantza eskolan bertan (José López Zanón eta Luis Laorga, 1965).

Igogailuek, bitartean, oinezko fluxuak lekualdatzeko gaitasuna dute, hierarkia espaziala eraldatuz. Irisgarritasun-konponbide soil batzuetan, igogailu-proiekturek ondorio fenomenologikoa izan dezakete, fenomenologia «espazioarekin dugun lotura pertsonala indartzen duen pertzepzio-areagotze» moduan ulertuz, Iñaki Ábalos-en hitzak

erabiliz. Igogailu berrieik, pasabide horizontal eta *travelling* bertikalen bidez, panorama berriak sortu dituzte, paisaiai beste modu batean begiratzea ahalbideratuz. Pasaiako badian Erreenteriako Alabergako igogailuak (VAUMM, 2017) dira seguruenik aipagarrienak, baina badia osoan zehar badira estilo ezberdinako arkitektura eta hirigintza-pieza interesgarriak, hala nola Altzako Buenavista, Trintxerpeko Los Marinos eta Ricardo Arrillaga kaleen artean, Andonaegi jauregiaren ondoan, Azkuenen edota Donibaneleko San Juan elizaren plazan.




Tradizioaren berrirakurketa desberdinak.  
*Diferentes interpretaciones de la tradición*



13



14



15


Torreatzen hiru eredu,  
garaikidea, modernoa,  
posmodernoa

*Tres ejemplos en la calle  
Torreatze, contemporáneo,  
moderno, postmoderno*



Erdibideko hautua. Eraikin honek tipología berritzaila aukeratzen du baina arkitektura 'tradicionala' gogoan hartzen duten hainbat keinu ditu.

*Termino intermedio. Este edificio usa una tipología innovadora para su época pero carga su fachada con simbología que remite a lo 'tradicional'.*



Lezoko Eugenio de Ochoa kaleko eraikin hauek hormigoizko egitura eduki arren, behe solairua harriz estalia du, keinu nostalgiko gisa.

*A pesar de que estos edificios de la calle Eugenio Ochoa de Lezo tengan estructura de hormigón, tienen la planta baja revestida en piedra, a modo de gesto nostálgico.*

18

El Pobladok etxe minimoaren tipologia eredua lengoia tradisional eklektiko batekin nahasten ditu. Kontraesan honek okerrera egiten du inguruaren dentsitate eta orografiarekin.

*En El Poblado se usa tipología de vivienda mínima contrapuesta a un lenguaje tradicionalista ecléctico. Esta contradicción se agrava con la densidad y la pendiente del entorno.*





19



20

Eraikinak eta hiriak badiarekin harreman  
zuzena lortzeko tipología. Lehena Luis  
Tolosarena.

*Tipología que posibilita la relación directa  
entre las viviendas y la ciudad con la  
bahía. La primera de Luis Tolosa.*

Gudari plazako dorrea eta inguruko eraikinekiko erlazioa.  
Auzo eskala eta hiri eskalaren arteko talka.


Relación de la torre de la plaza Gudari con su entorno.  
Encuentro de las escalas barrio y ciudad.





A

Goranzko kalea El Poblado  
*Calle ascendente en El Poblado*




B

Albergako  
igogailu kalea  
*Calle ascendente en Albergako igogailu kalea*


C

Gudari kaleko  
etxebizitza dorrea  
eta zokaloa  
*Torre y zócalo en Gudari plaza*





D

PABINSA.  
Garajeak eta  
lokalak  
*PABINSA. Garajes y locales*



E






**G**

Maldara moldatutako blokea Terranova kalean


Bloque adaptado a la pendiente en la Calle Terranova



**H**

Etxebitzta blokea Pablo-Enea kalean


Bloque de viviendas en la calle Pablo-Enea



**F**

Etxebitzta dorrea Azkuene inguruan



Torre de viviendas en Azkune



**I**

Etxebitzta blokea Ulia pasealekuau

Bloque de viviendas en el Paseo de Ulia



**J**

Etxebitzta blokea Pablo-Enea kalean

Bloque de viviendas en la calle Pablo-Enea

Bordalabordako etxebitzta, lokal eta garaje blokea

Bloque de viviendas, garajes y locales en Bordalaborda

22

PABINSA eraikinak Molinao errekaren eta San Marcos errepidearen arteko kota desberdintasuna probesten du.

*El edificio PABINSA aprovecha el cambio de cota entre el arroyo Molinao y la carretera de San Marcos.*



23

PABINSA eraikinaren fatxada nagusia.  
*Fachada principal del edificio PABINSA.*



Bordalabordako eraikinak bi kota  
desberdin lotzen ditu hainbat  
erabilera desberdinekin.

*El edificio de Bordalaborda aglutina  
diferentes usos en diferentes  
niveles conectando dos cotas.*





25

Badiako lur lau eskasetan hiriak zabalgune kuadrikula forma hartzen du. Maldetan aldatu egiten da.

*En el escaso terreno llano alrededor de la bahía, la ciudad toma forma de malla de ensanche. En pendiente esto cambia.*




26

Dorreak berdegunez inguratuta Altzan.  
*Torres rodeadas de verde en Altza.*



27

Espazio publikoak dorreen inguruan Altzan.  
*Espacio público entre torres en Altza.*



28

Kota aldaketa handiak sortutako begiralekua.  
*Mirador generado por el gran cambio de cota.*

29

Dorre batén  
inplantazio zaila  
Herrera.

*Implantación  
complicada de una  
torre en Herrera.*





30

Andonaegi, maldak  
sor ditzakeen  
arazoen erakurgarri.


*Los problemas que  
la pendiente genera  
en Andonaegi.*



31

Maila ezberdintan  
dauden dorre eta  
blokeen arteko  
harremana Azkuenen.

*Relación entre bloques  
y torres a diferente  
nivel en la zona de  
Azkuene.*



32

Maldan behera doazen kaleak nabarmentzeko pergolak.  
*Pergolas como forma de marcar las calles de subida.*



Eraikinek  
markatutako  
eskailera-bideak.

*Subidas de escalera  
marcadas por  
edificios.*







38



39

Orografiak  
sorturiko egoera  
desberdinak.  
*Situaciones  
generadas por la  
orografía.*







41

Ternua kaleko Agirre Orobiourrutiaaren eraikina.  
Fatxada berritu egin dute, baina adreiluzko pieza  
bereziak mantendu egin dira.

Edificio de Aguirre Orobiourrutia en la calle Terranova.  
La fachada ha sido renovada, pero las piezas de ladrillo  
características perduran.

# *III*

*ESPRESIBITATE BERRIAK  
IZENIK GABEKO ARKITEKTOAK*

*NUEVAS EXPRESIVIDADES  
ARQUITECTOS ANÓNIMOS*

## NUEVAS EXPRESIVIDADES

Además de los elementos morfológicos, son muchos los mecanismos formales destacables de esta ciudad de la mayoría. Mientras que Mies Van der Rohe –entre otros– decía que dios estaba en los detalles, es quizás más popular la contraria, aquella que dice que es el demonio quien vive en ellos.

En cualquier caso, los cambios tecnológicos de la época tuvieron un impacto directo en el lenguaje arquitectónico, en los materiales, en los detalles. En el caso de Pasaia son aquellos ejemplos de arquitectura moderna más temprana los que tienen mayor aprobación social: las oficinas del puerto de Luis Tolosa o el edificio de la Redería en Trintxerpe de Fausto Gaiztarro. Es probablemente el desarrollo del hormigón uno de los elementos más destacable de esta época y su utilización generalizada en prácticamente toda la arquitectura de la segunda parte del siglo XX, lo que ha hecho que la expresión de la estructura directamente en fachada haya sido un recurso expresivo muy utilizado. Debido a este desarrollo el hormigón toma casi el estatus de material noble y se utiliza de forma extensiva en edificios como el instituto Marítimo Pesquero (José López Zanón y Luis Laorga, 1965), obra brutalista que niega toda concesión al pasado. No es el único: la guardería María Pilar Izquierdo (José María de Yturriaga Dou, 1959), con sus pórticos de hormigón cerrados en vidrio y su cubierta y campanario deconstruido, o Bianchi en Pasai Antxo (Juan Miguel

Rezola, 1948), con su desconexión entre la cubierta en sierra y su fachada más clásica, son ejemplos de nueva arquitectura en hormigón. Destacable es también la importancia de la industria y de la fábricas, con edificios tan destacables como Duela Llusa, la fábrica de Puig y Cía, Oxigraf, Zardoya-Otis, Zamakona, Luzuriaga, etc.

El ladrillo ha sido otro material ampliamente usado en este proceso de cambio. A pesar de ser un elemento de larga tradición, varios arquitectos lo han sabido usar en su adaptación industrial para generar un nuevo lenguaje, desde influencias más modernistas (como el zócalo de la plaza Gudari de Trintxerpe) a formas que plantean un brutalismo de ladrillo, reafirmando la expresividad de la estructura, como el edificio de la calle Gran Sol 11 (Román Azcue, Vicente Orbe y José Luis Pla, 1963). Este uso del ladrillo da para varias formas de generar gestos y expresiones en la arquitectura. Es destacable, por lo peculiar del gesto, el uso que hace del ladrillo el arquitecto Aguirre Orobiourrutia en sus obras, marcando esquinas y puntos sueltos con un ladrillo rústico casi como si de piedras se tratara; así lo hace en sus edificios de Txapiñene y en la calle Terranova en Trintxerpe. Elementos de filtro, como los vidrios tintados de colores vivos o las celosías cerámicas, son otros elementos que se usan en sus edificios.

## **ESPRESIBITATE BERRIAK**

Elementu morfologikoez gain, asko dira gehiengoaren hiria berezi egiten duten mekanismo formalak ere. Mies Van der Rohe-k –besteak beste– zioen jainkoa detaileetan dagoela, esaldiaren aldaera ospetsuagoak kontrakoak dioen arren, alegia, detaileetan bizi dena deabrua dela.

Nolanahi ere, aldaketa-teknologikoek eragin zuzena izan zuten arkitektura-lengoaiaren, materialetan, detaileetan. Pasaiako kasuan adibide goiztiarrenak dira, lengoaia moderno klasikoena darabiltenak, onarpenean sozial handiena dutenak: Luis Tolosaren portuko bulegoena eraikina Antxon eta Fausto Gaiztarroren Rederia eraikina Trintxerpen. Hormigoiarri material noble izaera aitortu zitzzion, eta hor dago Pasaiako Itsas Arrantza eskola brutalista material berriek espresibitate berriak sortzen dituzten erakusle, tradizioari kontzesiorik egin beharrik gabe. Ez da bakarra, baina: Trintxerpeko María Pilar Izquierdo haurtzaindegia (Jose María de Yturriaga Dou, 1959) eta Antxoko Bianchi (Juan Miguel Rezola, 1948) ere adibide interesgarriak dira. Lehenengoan egitura-portikoa eta beirazko itxitura azpimarratu daitezke, kanpandorrearekin batera –dorre-dorre ez den arren baina, tira–; bigarrenean kaletik ikusten ez diren argi-zuloak, fatxadaren konposizio klasikoagoarekin batera. Azkenik, ezin industria aipatu gabe utzi, desagertuak edo desagertzear dauden eraikinak gehienak: Duela Llusa, Puig y

Cía-ren lantegia, Oxigraf, Zardoya-Otis, Zamakona, Luzuriaga eta abar.

Adreilua ere deblauki erabili da eraldaketa-kontestu honetan. Tradizio luzeko elementua izanagatik, lengoaia berri bat sortzeko erabiltzen jakin dute hainbat arkitektoak, influentzia modernistetik (Gudarien plazako dorrea kasu) konposizio brutalistagoetaraino, egituraren espresibitatea azpimarratuz, Gran Sol kaleko 11.a bezala (Roman Azcue, Vicente Orbe eta Jose Luis Pla, 1963). Asko dira fatxada osoa adreiluz estalia duten eraikinak, baina badira beste motako fatxadak, non adreiluek eraikinen ertzak soilik markatzen dituzten edota noizbehinka agertzen diren solte, elementu sinbolikoak bailiran. Agirre Orobiourrutia arkitektoarenak dira horietako asko, Altzako Txapinenen eta Trintxerpeko Terranova kalean, esaterako. Gresitea, kolore biziz tindatutako beira eta zelosiak osatzen dituzten zeramikazko piezak ere topa ditzakegu bere eraikinetan.

Egiari zor, gresitea –azulejoak oro har– eta zelosiak nonahi aurki daitezkeen elementuak dira, eraikinei ukitu domestikoa ematen dietenak. Lehenek materialak berak duen konnotazioagatik, domestizitateari eta barnealdeko arkitekturari oso lotua; bigarrenetik, aldiz, erdizka ezkutatzaren dutenarengatik: eskegitako arropa, janaritegia eta barne-eskailerak bereziki.

*Elementos como el gresite o el azulejo y las celosías son elementos generalizados en la arquitectura de vivienda de esta época, elementos que consiguen trasladar cierta domesticidad del interior a la fachada. Los primeros por su connotación y su origen en las partes húmedas de las viviendas; las celosías por lo que esconden a medias: ropa colgada, despensas o escaleras interiores.*

*Las cubiertas en un entorno como Pasaia, con sus pendientes, son muy visibles, y así aquello de la quinta fachada toma mayor importancia en esta ciudad en pendiente. Desde ese punto de vista no está de más reivindicar las cubiertas aljibe de las fábricas, como por ejemplo la de CIANCO en Molinao. Ya hemos mencionado las cubiertas en dos pendientes de El Poblado, casi más propias del Roncal. La forma de rayo de la cubierta de hormigón de las viviendas San José Artesano (José María de Yturriaga Dou, 1964), en la zona de Azkuene, son también destacables, al igual que la cubierta del bloque Pablo-Enea 6-12 (Azcue-Orbe-Pla, 1964), con una solución muy ingeniosa de cubierta a dos aguas en cuatro planos. A veces es la cubierta el elemento más destacable del edificio como las viviendas de conjunto Caballo Blanco, o como las formas aleatorias de la cubierta de uno*

*de los edificios de la escuela Karmengo Ama o los nuevos pabellones del puerto. Hay también el caso en el que todo el edificio es su cubierta, como Pasaia-Lezo Lizeoa o el nuevo frontón Ibaiondo (VAUMM, 2015).*

*Para quien quiera verlas, estas nuevas formas están ahí para ser apreciadas, hasta casi componer un catálogo. Se pueden encontrar en las formas del hormigón o en los cerramientos de ladrillo, en las formas de los balcones o en el uso del azulejo. También en el uso de filtros para definir espacios para colgar la ropa o cajas de escalera; de cerámica, vidrio, madera, metal. Y finalmente en el cambio en el tiempo que se hace de todos estos elementos, debido a rehabilitaciones de fachada o pequeños cambios individuales de cada vecino o de la planta baja. Es un extenso catálogo de arquitectos anónimos.*

Teilatuak ere ezin aipatu gabe utzi, estalkia delako eraikin baten bosgarren fatxada. Eta hirigune lauetan ez bezala, aldapen hirian teilatuak nabarmen ikusten dira. Interesgarria da, esaterako, Molinaoko CIANCO lantegiaren estalkia, non ura erabiltzen den isolamendu moduan. Aipatu ditugu ere El Pobladoko isurki ezberdineko teilatuak, Erronkarirako aproposagoak. Batzuetan, perfil markatuak ematen dio indarra estalkiari: San José Artesano blokeetan nabarmen, eta sotilago eraikin berriago batzuetan, San Markos errepeideko 4. zenbakiko izkinan, esaterako. Beste batzuetan, teilatuak osatzen duen prisma da eraikinaren elementu bereziena, Caballo Blanco auzunean, Karmengo Ama ikastetxeko hegoaldeko piezan edota Portaldeko 6B, 7 eta M biltegietan ikus daitekeen moduan. Kasu muturrekoenatan, azkenik, estalkiak berak definitzen du eraikina; hor daude, adibidez, Pasai-Lezo Lizeoa edo Antxoko Ibaiondo frontoia (VAUMM, 2015).

Begiratu nahi duenarentzat, beraz, espresibitate berri hauek edonon topa daitezke, ia ia katalogo bat osatzeraino. Aurki daitezke hormigoiaren formetan eta adreiluzko itxituretan, balkoien forma anitzetan eta barandetan, eta balkoi-espazioa mugatzen duten hormetan eta azulejuaren erabilera. Baita ere arropa eskegitzeko espazioak

ixten dituzten zelosietan –zeramikazkoak, beirazkoak, egurrezkoak, metalezkoak–, eskailera-kaxetan eta estalkien perfiletan. Eta azkenik, pixkanaka eta denboraren poderioz, elementu horien guztien tuneoan, zaharberritze lanek eta bizilagunen obra txikiek gehitutako geruza osagarriean. Hau bereziki ikusgarria da behe oinetan, lokal askok nahieran itxuraldatu dutelako jatorrizko diseinua: kalera jotzen duten ate domestikoak, ideia zehatzak azpimarratzeko ornamentuak, itxitura-material askotarikoak, kolore-aukeraketa bariopintoa, tipografiaren erabilera... Katalogo aberatsa da, luzea baita egile isilen arrastoa.

42

Egituraren espresioa  
txuriz alboetako  
fatzadan, estalkiaren  
forma askean  
bukatzen dena.

*Expresión de la  
estructura de  
hormigón en  
fachada que choca  
contra la forma libre  
del perfil de cubierta.*





43

Estalkiaren forma hustua,  
badirako begiraleku gisa,  
altzako dorre hauetan.

*Forma de cubierta vaciada, a  
modo de mirador a la bahía, en  
estas dos torres en Altza.*



44

De Yturriaga Dou-ren eraikinek egitura erakusten dute beti, modulu errepikakorrekkin, askatasun gehiago eskainiz balkoi eta estalkiaren formari.


*Los edificios de De Yturriaga Dou siempre expresan estructuras de hormigón muy rígidas y modulares, dejando más libertad a balcones y cubiertas.*



45

Azcue-Orbe-Pla hirukoteak adreiluaren materialitatearekin eta egiturarekin jolasten du nabarmen.

*Los edificios del trio Azcue-Orbe-Pla juegan con la materialidad del ladrillo y la expresividad de la estructura.*



47



46



48

Filtro mota desberdinak fatxadetan: beiradun erretakula angeluzuzenak, zoramikazko piezekin egindako zelosiat edo adreilu trinkoez egindako konposizioak.

Diferentes tipos de filtro en fachada, desde mallas acristaladas o piezas cerámicas de celosía o filtros a partir de composiciones de ladrillo macizo.

Material soil batekin egin daitezkeen mila konbinazio. Azcue-Orbe-Pla hirukoteak adreiluaren espresibitatea maila goren batera eramatzen dute.

*Mil combinaciones con un único material. El equipo compuesto por Azcue-Orbe-Pla utiliza el ladrillo llevándolo a un nuevo nivel.*



Pertsonaia baten obsesioak.  
Agirre Orobiourretiak beti  
erabilitako hiru elementu:  
Gresitea fatxadan, adreilu  
bereziak izkinetan eta tarteak  
fatxadan eta koloreztatutako  
beirak. Txapinene, Altza.

50

*Obsesiones de un personaje.  
Tres elementos utilizados  
por Aguirre Orobiourreta:  
el gresite en fachada, el  
ladrillo particular en las  
esquinas y desperdigado en  
fachada y los vidrios tintados.  
Txapinene, Altza.*



51

Balkoiekin jokuak fatxadetan eta baranden transparentzia eta opakotasunaren aldaketak, erabileraaren arabera.

*Juegos de balcones en fachada y variaciones de opaco y transparente en barandilla según uso.*



Balkoi eta pasarelekin  
bariazioak triplex hauen  
fatxadan. Soilik leihoa  
logeletan, puntadun balkoiak  
egongeletan eta pasarela  
sarrera-sukaldlean.

Variaciones con balcones y  
pasarelas en la fachada de  
estas viviendas en triplex.  
Ventanas en las habitaciones,  
balcón en punta en el salón y  
pasarela en la entrada-cocina.



53





Zabalgune moduko izkinen definizioa Pasaialdeko arkitekturan, Errenteria.

*Definición de la esquina en ensanche en Pasaialdea, Errenteria.*



## **ARQUITECTOS ANÓNIMOS**

*Construida de hormigón y ladrillo, pero también de urgencia, esta ciudad se representa a menudo fría, de una humanidad reducida. Pero detrás de esa representación que se ha hecho de esta ciudad hay, como hemos visto antes, decisiones y opciones, por pequeñas que estas sean. Estas decisiones no encajan dentro de un lenguaje clásico; son difíciles de leer y parecen incomprensibles o ilógicas a menudo, pero nos recuerdan que detrás de la arquitectura está la experiencia humana, es decir, personas –y no únicamente economía o necesidades–.*

*Los arquitectos que pensaron y dibujaron esos edificios son los que en un primer momento tomaron decisiones y allí sigue su rastro. A pesar de ello, no deberíamos pensar que las decisiones que tomaron fueron caprichosas: cada tiempo tiene sus limitaciones y sus condiciones y así se entiende la gama limitada de materiales, el uso generalizado de la estructura de hormigón o la reducida variación de la tipología mínima de vivienda. Entre estos límites y condiciones hacen los arquitectos su trabajo y aquellos que trabajaron en Pasaia supieron dejar un rastro destacado.*

*A pesar de que hoy son unos desconocidos, estos arquitectos eran personas destacadas en el mundo de la arquitectura de la época. Ricardo Olaran, Eugenio de Aguinaga, Luis Laorga, Luis Astiazaran, Javier Marquet, Felix Llanos o el estudio de Azcue-Orbe-Pla tienen varios edificios o planes en Pasaia. Junto con estos hay otros que trabajaron específicamente en Pasaia y que contienen mucha de su obra por toda la bahía.*

*Es muy curiosa la obsesión de J.M. Aguirre Orobirrurutia con un ladrillo de textura muy particular que utilizaba en todos sus edificios y que los usaba en fachada solo puntualmente sobre fachada de gresite a modo de piezas de Tetris. También destacables los balcones de Jose María de Yturriaga Dou, siempre acabados en punta, como si de proas de barco se trataran. O los planos de ladrillo del trio Azcue-Orbe-Pla utilizándolos de forma textil en fachada, casi buscando un brutalismo del ladrillo.*

*Si los arquitectos dejan su marca en la fase de construcción, son los usuarios los que van haciendo cambios en los edificios y en sus entornos, más aún en zonas a las que no se les otorga valor. En estas zonas, donde el celo urbanístico del ayuntamiento es menor, es más común encontrarse intervenciones de los usuarios. En las zonas que se tratan en este libro son comunes las autoconstrucciones y las apropiaciones y no es raro encontrarse cambios en fachada, balcones cerrados con vidrio, ventanas ampliadas, pequeños jardines organizados por los vecinos o otro tipo de pequeñas intervenciones.*

*A veces realizadas por la necesidad de añadir algo que se consideraba que le faltaba al edificio, a modo de medidas de mantenimiento o como elementos de personalización, estos pequeños cambios nos recuerdan la pluralidad de los habitantes. Deberíamos elogiar el trabajo de estos arquitectos anónimos, tomando la idea que hay detrás y generalizándola: ¿Cómo se puede cambiar un edificio para adecuarse a las necesidades del entorno y de los usuarios? ¿Podríamos entender esta capacidad de cambiar las cosas como mecanismo para protegerlas?*

## **IZENIK GABEKO ARKITEKTOAK**

Hormigoiez eta adreiluz, baita urgentziaz ere, eraikitako hiri hau hotza, gizatasun gutxikoa, gogorra irudikatzen dugu askotan. Baino irudi horren atzean badira, aurreko atalean ikusi dugun bezala, erabakiak eta aukerak, keinu xumeak baizik ez diren arren batzuetan. Erabaki hauek ez dira lengoia klasiko baten barruan sartzen; irakurtzen zailak dira batzuetan eta ulertezinak edo zentzugabeak dirudite askotan, baina arkitekturaren atzean giza-esperientzia dagoela gogorarazten digute, alegia, pertsonak –eta ez soilik ekonomia edo beharrak–.

Eraikin horiek pentsatu eta marratzu zituzten arkitektoak dira lehen fase batean erabakiak hartu zituztenak, eta han jarraitzen du haien arrastoak. Hala ere, hainbat gaietan erabakiak ez dira libre: garai bakoitzak mota askotako baldintzak zehazten ditu eta horrela uler daitezke materialen paleta mugatua, hormigoizko egitura ia derrigorrezkoa edo etxebizitza minimoaren tipología mugatua. Baldintza eta muga hauen artean burutzen du arkitektoak bere lana eta garai harten Pasaiako inguruan lan egin zutenek jakin izan zuten haien arrastoa modu nabarian uzten.

Gaur egun ezezagunak egiten zaizkigun arren, arkitekto hauek itzal handiko pertsonak ziren garaiko arkitektura munduan. Ricardo Olaran, Eugenio de Aguinaga, Luis Laorga, Luis Astiazaran, Javier Marquet, Felix Llanos edo Azcue-Orbe-Pla hirukoteak badituzte hainbat eraikin eta plan Pasaiako badian. Hauekin batera badira Pasaiako bereziki lan egin zutenak, eta haien zigilua badia osoan zehar eraikin desberdinatan aurki daiteke.

Nabarmena da, esaterako, J.M. Aguirre Orobirrutiaren obsesioa testura oso zehatz eta berezi bateko adreiluarekin, gresitezko fatxadetan puntualki txertatzen dituenak Tetris jokoaren piezak bailiran. Azpimarragarriak, baita ere, Jose Maria de Yturriaga Douren balkoiak, puntan bukatuak, barkuen brankak balira bezala. Interesgarria ere Azcue-Orbe-Pla hirukotearen adreilu mota desberdinaren erabilera eta horiek kokatzeko moduekin planoak azpimarratzeko joera, adreiluzko brutalismo moduko batean kokatu daitekeena.

Arkitektoek haien marka uzteko aukera izaten badute eraikitzeko fasean, erabiltzaileak dira gerora eraikinetan aldaketak egiten dituztenak, are gehiago balio gehiegirik aitortzen ez zaien ingurueta. Horrelakoetan, non errezel o urbanistikoa eta udaletxearen kontrola murritzagoa den, ohikoagoa da arkitektura hauen erabiltzaileek aldaketak proposatu eta burutzea. Liburu honetan lantzen diren auzo eta kaleetan ohikoak dira autoeraikuntza eta jabetzeak, eta oso maiz aurki daitezke norberak aldaturako fatxada zatiak, negutegi modura itxitako balkoiak, handitutako leihokoak, auzotarrek kudeatutako lorategi txikiak eta antzerako esku-hartze txikiak.

Jatorrizko eraikinean falta ziren elementuak gehitzeko asmoz eginak batzuetan, mantentze lanen ondorioz edo pertsonalizazio modura bestetan, aldaketatxo hauek guztiak nabarmentzen dutena erabiltzaileen aniztasuna da. Goraipatu egin beharko genuke izenik gabeko arkitekto hauen lana, atzean dagoen ideia hartuz eta orokortuz: nola aldatu daiteke eraikin bat erabiltzaileen eta inguruaren beharretara moldatzeko? Uler al genezake aldaketetara egokitzeko gaitasuna edozer babesteko mekanismo moduan?

Agirre Orobiourretiaren detaileak.  
Gresitea, adreiluen fatxadako  
kokatzea eta laranja kolorez  
tintatutako behe beirak.

*Detalles en la arquitectura de  
Aguirre Orobiourreti. Gresite,  
colocación de ladrillos en  
fachada y vidrios bajos tintados  
en naranja.*





Azcue-Orbe-Pla hirukotearen  
adreilu planoen jokoak. Pablo  
Enea kaleko eraikin hau arkitekto  
talde honen lengoaiaren  
erakusgarri aparta da.

Juegos con planos de ladrillo  
del equipo Azcue-Orbe-Pla. Este  
edificio de la calle Pablo Enea es  
un buen ejemplo del lenguaje de  
este equipo de arquitectos.

59


Felix Llanosen  
Azkueneko dorre  
hauetan fatxada lerrota  
ateratako balkoi  
minimo bat dute.

*Estas torres de Felix  
Llanos en Azkuene  
incluyen un pequeño  
balkón extraido de  
fachada.*




60

Puntadun balkoiak Erreenterian.  
*Balcones en punta en Erreenteria.*



De Yturriaga Dou-ren balkoiak  
Donibanen. Branka forma hori  
hartzen dute beti bere eraikinetan.

Balcones en San Juan del  
arquitecto De Yturriaga Dou.  
Siempre toman forma de proa en  
sus edificios.





62

De Yturriaga Dou-ren balkoiak Ulia pasealekuko triplexetan. | *Balcones del arquitecto De Yturriaga Dou en los triplex del paseo de Ulia.*



63

Kalea eta  
pasarela

*La calle y la  
pasarela.*



64

Mailakako  
pasarela bideko  
ibilbidea.

*Recorrido en  
niveles en  
pasarela.*



65

Erabiltzaileek  
egindako aldaketak.

*Cambios realizados  
por usuarios.*



66



67

Pasaiako Itsas Arrantza  
Eskolako dorreko orratza.

*Aguja en la torre del Instituto  
Marítimo Pesquero.*



*IV*

*EPILOGO A*

*EPÍLOGO*





Jolastokietako dorreak  
Txapinetik, Altza.

*Las torres de Jolastokieta  
desde Txapinene, Altza.*









## EPILOGO

Hasieran aipatu dugu nostalgia esaten dugunean orokortua dugun nostalgia berreraikitzale bat egiten diogula erreferentzia. Eraikin eta leku batzuen balioa besteen gainetik jartzera ohitu gara, lehia bat izango balitz bezala, generikoa edo orokorra denari balioa ezereztuz. Liburu honetan hurbilketa bestelako bat eman nahi diogu eraikitako inguruari. Hemen proposatutako begirada gure hiria, gure bizilekua modu ulerkorrago batetik begiratzent duen begirada bat da, edozein arkitektura gizartearen eta denboraren islada dela ulertzen duena.

Denise Scott-Brown eta Robert Venturik *Learning from Las Vegas* saiakera ja mitikoan idatzita utzi zuten, itsusia edo arrunta –edo ederra eta berezia-izateko bi modu daudela. Lehena da diseinuaren eta eraikuntzaren ezaugarriengatik; bigarrena, hura ikusteko dugun moduarengatik. Alegia, prozesuak ala sinbolismoak egin dezake eraikin bat eder, berezi, itsusi ala arrunt.

Pasaian, eraikin gehienak arruntak dira. Ohiko materialez eginak daude, ohiko eraikuntza-teknikak jarraituz. Orduko industriaren estandarrak jarraitu

zituen, ahalik eta azkarren, merkeen eta egokien eraikitzeo. Eraikin berriak aurre-antolamendurik gabe diseinatu ziren kasurik gehienetan, interes pribatuak hala erabakitzen zuen tokian eta momentuan. Demografikoki, gainera, bizilagun berriak ezberdinak ziren nagusiki, «nostalgia komunaren benerazioa» arrotz zitzaien nazio eta klase batekoak. Testuinguru historiko, politiko eta sozialak erabat baldintzatzen dute gizartea edertasuna ulertu eta baloratzeko duen modua, eta Pasaiako badiako testuinguruak bederen txartel guztiak zituen «itsusia» etiketa irabazteko.

Galdera litzateke ea leku «itsusiak» «ederrago» bilaka daitezen sariatza baino, ez ote genukeen (ustez) itsusia den hori modu positiboan ulertzen sariatu behar. Izan ere, Robert Louis Stevenson idazleak ongi esan zuen moduan, posible delako leku desatseginez gozatzea lehen begi-kolpean ikusten duguna gaindituz gero: «paisaiak iritzia baldintzatu baino, iritzia da paisaia baldintzatzen duena, eta beraz, gu geu bihurtzen gara nolabait edertasunaren sortzaile, edertasunaren akiuilu». Pedagogia ariketa kolektibo baten alde, beraz, itsuskeria itsustasun bilaka dadin.

## EPILOGOA

Hasieran aipatu dugu nostalgia esaten dugunean orokortua dugun nostalgia berreraikitzale bat egiten diogula erreferentzia. Eraikin eta leku batzuen balioa besteen gainetik jartzera ohitu gara, lehia bat izango balitz bezala, generikoa edo orokorra denari balioa ezereztuz. Liburu honetan hurbilketa bestelako bat eman nahi diogu eraikitako inguruari. Hemen proposatutako begirada gure hiria, gure bizilekua modu ulerkorrago batetik begiratzen duen begirada bat da, edozein arkitektura gizartearren eta denboraren islada dela ulertzen duena.

Denise Scott-Brown eta Robert Venturik Learning from Las Vegas saiakera ja mitikoan idatzita utzi zuten, itsusia edo arrunta –edo ederra eta berezia-izateko bi modu daudela. Lehena da diseinuaren eta eraikuntzaren ezaugarriengatik; bigarrena, hura ikusteko dugun moduarengatik. Alegia, prozesuak ala sinbolismoak egin dezake eraikin bat eder, berezi, itsusi ala arrunt.

Pasaian, eraikin gehienak arruntak dira. Ohiko materialez eginak daude, ohiko eraikuntza-teknikak jarraituz. Orduko industriaren estandarrak jarraitu

zituen, ahalik eta azkarren, merkeen eta egokien eraikitzeo. Eraikin berriak aurre-antolamendurik gabe diseinatu ziren kasurik gehienetan, interes pribatuak hala erabakitzen zuen tokian eta momentuan. Demografikoki, gainera, bizilagun berriak ezberdinak ziren nagusiki, «nostalgia komunaren benerazioa» arrotz zitzaien nazio eta klase batekoak. Testuinguru historiko, politiko eta sozialak erabat baldintzatzen dute gizarteak edertasuna ulertu eta baloratzeko duen modua, eta Pasaiako badiako testuinguruak bederen txartel guztia zituen «itsusia» etiketa irabazteko.

Galdera litzateke ea leku «itsusiak» «ederrago» bilaka daitezen sariatza baino, ez ote genukeen (ustez) itsusia den hori modu positiboan ulertzen sariatu behar. Izan ere, Robert Louis Stevenson idazleak ongi esan zuen moduan, posible delako leku desatseginez gozatzea lehen begi-kolpean ikusten duguna gaindituz gero: «paisaiak iritzia baldintzatu baino, iritzia da paisaia baldintzatzen duena, eta beraz, gu geu bihurtzen gara nolabait edertasunaren sortzaile, edertasunaren akiulu». Pedagogia ariketa kolektibo baten alde, beraz, itsuskeria itsustasun bilaka dadin.

Kronoirudia. Pasaialdeako  
eraikinen adina; gorri zaharrenak,  
gris argiz berrienak.

*Cronoimagen. La edad de los  
edificios de Pasaialdea; en rojo los  
más antiguos, en gris claro los más  
recientes.*





Irudien kokapena eta testu eta irudietan azaltzen diren eraikinak.

## *Localización de las imágenes y los edificios que aparecen en textos e imágenes.*











ereiten  
kultur zerbitzuak